

LIMOIZKO ZIPRIZTINAK

Kaixo, pittin:

Batzuetan, zalantzaren balantzan zure zetaren arantzak zititzen nauen arren; zu maitatzen jarraitzen dudala jakinarazi nahi dizut. Zure esaerak eta belarriak laztantzeko zure modua maite ditut. Bokalak ahotik erorita ibiltzea eragiten didazun eta hitzak dantzan jartzen dizkidazun alkohola zara. Horrela lokartzen naiz tarteka-marteka, zu edanda basoerdi, hordi; Eñaut Elorrietaren letrekin, zure izarren distirapean. Izarrek ez, oroimenaren flashak itsutu nau gaur.

Xabierrek lantzean behin, segundo ezti batzuetan nire kiliken atlasa marrazten zidan gerriondotik behera. Zure maparen zatitxo bat zen. Tarteka, egun trumoitsuetan, "ebie" marrazten zidan eta aldika, lasaitzen nintzenetan, "gibelaundie". Hanka sartze ugari egiten nizkizun, berria baitzinen niretzat eta hanka sartzeei esker, hanka sartzen zidan goxo; bero; ero. Afaria prestatzean, EITBko *Hitza jolas* podcasteko bertso saioekin jartzen zintudan praktikan nire kolkoko ganbaran. Behin, mikrouhinean purea sartu eta "berotuko dizut" esan beharrean, "berotuko zaitut" adierazi nion. Akatsek eragindako barrez galtza bustitze hark afariak baino gehiago bete ninduen. Eta horrelakoetan hasten ziren larruak marruka, tiro eta ito, tira eta bira, zirri-zarra. Ezpainak batzen zituen txirrina ateratzen zitzaidan jolasti, "ni re oska aittu naiz" esan orduko. Belarriaren zorroztasunean gainerako zentzumenak lardaskatzen dira eta artean, plazera sokasaltoan hasten da zentzumen horien harietan hegan. Xabierrek aluko hariak gitarra baten erara ferekatzen zizkidan; ahoko tangoak harik eta arin-arinean jarri arte. Orduan, soprano errimak pega-pega eginda nituela, arnasari korrika egiten uzten nion. Grinazko musuak ziren, neurri eta doinua zuten ahapaldi justuak, doiak; azaleko brailleko izerdia zortziko txikian eta ferekak handian. Zoko berriak esnatzen zizkidan azalean, dagoeneko kuluxkan nituen zokoak. Lipar hartan ikasi nuen zuk erditu zenuen "txortan egin" zer zen, nire hizkuntzako "short time" eta "bihotza" bi soinu, bi hots, bi taupada, bi arnas estu zirela ere.

Aspalditik ez dudala harekin izerdia partekatu. Ez nago ziur zazpia edo zortzia den mugikorraren zenbakiari popan ostikada ematen dion azken zifra eta hanka gehiago ez sartzearren, urtebete daramat zu bere ahotsean kulunkatu ezinik. Izan ere, hark era bateko amodioa eman zidan; nik ordea, erabatekoa eman nion. Nolakoa da oinazea bizkarretik, gibeletik? Aurpegia kukutzea baino ilunabar lotsagarriagorik, gorriagorik ba al dago? Iluntzeetan ez mezurik, ez iruzkinik, ez deirik, ez hitzordurik. Ez harremanaren mintza apurtzen zuen hitzik, hitz-mitzez birjina. Ezer ere ez. Mugikorrari so eginez ebaki nituen azken eleak. Arin-arinak dantzatu genituen, baina aurrez aurre, bekoz beko, begiz begi ez zidan txapela kentzeko inongo agurrik egin. Irakurri egiten duen, baina erantzuten ez duen axolagabea. Irakurri egiten duen, baina profil baten atzean emozioak daudela jakitera iristen ez den mamua. WhatsAppeko isilaldia zalditik astora joaten da, ezdeusa are ganduago egiten duelako, ia ikusiezin bilakatzen zarelako, ia ezabatzeko tekla. "Sobrare, hoztu intzaizu kontatzeko beharra; hitzek mingaineko sobren sartu dittuzu ta oain, hortio atatzeko komerik, ala?" idatziko nioke zure goierritar hizkera horretan; hala ere, limoizko zipriztinak besterik ez zizkidan itzultzen, zipriztinik garratzenak ziren, mingarrienak. Isiltasunaren oihartzunak. Orduan irakatsi zenidan euskaraz maitemintzea zer zen, maite egiten zela, alabaina mintzea ere bazela. Eztenak mina, hitzik ez

denean jakin-mina, hitzen goseak jaki mina. Mezuen bibrazio faltak irentsi egiten dira; isiltasun gizen horiek dira tripako minen bira.

Aitonarengandik barneratu nuen iragana limoi zukuan disolbatzen zela. Iragana birrindu eta zuku bihurtu ezean, ez zegoela gozotasuna dastatzerik. Lehenaldia ez, bera desegiten zait ordea, limoi zukua egin eta mutu, limoizko zipriztinak botatzen dizkidanean. Limoizko zipriztinak maitasunean, limoizko zipriztinak azalean, limoizko zipriztinak erreduran; bai, ez dira nire ama hizkuntzako "my suns"; limoizko zipriztinak dira maiz asun. Zertarako hasi behar naiz mazedonia egiten? fruitu gozagoaren aldeko apustua egin dut. Esperientziaren besarkadara irristatu egin behar da eta harekin ez erortzen jakin, haren berotasunari eusten asmatu. *Ghosting*aren gorria hor egongo da, baina nekaldia ezin da urraduraz urradura odolbiltzea bihurtu. Hori dela eta, hurreratu naiz Igorrengana. Urola aldera. Distantziatik. Nekeza egiten zait desioaren eta (des)agertzearen laborria maitasunaren berdintzatik bereiztea eta ekuaziotik azkeneko X (ez)ezaguna ezabatu ote den galdetu diot neure buruari; Igorren begiak ikusteko gogoz, buelta eman eta musu bat matrailean itsasi bezain laster. "Maite zaitut" heltzen zait mingain erpinera, oraindik ahoskatzera ausartzen ez naizen zure hitz hori. Aitzitik, ez dago tokirik elkarren sekretuak eta ikarak ezkutatzeko. Elkarren zangoen barrualdeak estu egoten dira, hori aski izaten da bestearen dardaren berri izateko. Ingurukoei ez diet aipatu ere egin zurekin eta berarekin barea bezala arrastoa utziz lerdea dariola nagoenik, hori igarri egiten da eta. Nork bere modura. Haiek sudur-zuloetan begiesten dute. Zu nire belarrien sehaskan zabuka jartzen zaren aldiro, hitanoko *-txio-* horiek xuxurlatzen dizkidazun aldiro, "natxion" bezalakoak jantzien josturetatik sartzen zaizkidan aldiro, "a(d)arra jo" kontsonante ahoskatu gabeak titi-punti jartzen nauten aldiro, "mendiye" bezalako zure aldaerek kilikatzen nauten aldiro eta "lepo gustatze zat zuen hizkerie" esaten dizudan aldiro, sudur kanalak hanpatu eta apaldu egiten direla diote, trena abian jarri eta sudur-zuloetako tunel beltzean argia pizten ei zait. Ikustekoa omen da nire aurpegiko argitzea eta ispilura begiratu beharko nukeela komunikatzen didate, trena martxan nola jartzen den hautemateko. Haatik, ekia ez da une oro ekialdetik ateratzen eta nik ekialdetik irteten ez diren haren eta zure suak laket ditut; sutan jartzen nautelako. Suak eta garrak hartuta zaudenean, "ja ta" zein "aitze al dezu?" hitzek urdaila kiskaltzen didate, batzuetan gozoa izatera iristen diren galletak dira.

Musika abesten ari da. Eñaut Elorrieta jarri dit logelan. Artaziak hartu eta ordu txikiei minutuak moztu dizkiotela dirudi. Hitzak umeldu ditugu, umeldu belarriak, umeldu mihiseak. Eta orain, Igorren larruazaleko zimur bakoitzean igeri egiten dut. Oin puntetan ari da mihia boza ebakitzen, ahapetik atera zaizkit zure mintzo eztiak: "Bihotza, maittea, ttiki!". Bizitza aisatu egin behar da, erraztu. Pozgarria da gure harpeetan bakarrik bizi ez garela ohartzea, onestea iluntasun txikiagoa zor diogula geure buruari. Usu, negar-arpuluen minak hizketak goxatzen ditu eta izerdi tanta astunak berriz, denboraren goriak lurruntzen ditu. Harremanetan sua itzali daiteke, baina keak bertan dirau. Eta zuk, ke-laino artean gidatu nauzu maitasunean. Hitzekin jolastu eta zure azala poroz poro, puntaz punta ukitzen ari garenen atximurrak, hutsegiteak umorez hartu behar ditugula ikasi dut. Irri eginarazten didazun era gogokoa dut. Zu, hizkuntza, zoragarria zara. Fantasia gozoa. Amets hutsa. Aditzera ematen duzun moduan: "Ametsik gabeko bizia, izarrik gabeko gaua". Barkatzen irakatsi didazu, bizitzen eta batez ere, gauetan izarrak ikusten, kuleroak gaseosa bihurtzen dizkidazun bitartean.

Bizirik sentiarazten nauzulako

Emily

Ezizena: Xapu